

G-2010427

ERANSKINA

**IURRETAN HILDAKOEN ALDEKO
AGURRAK EDO OMENALDI ZIBILAK
EGITEKO ARAUDIA**

ATARIKOA

Gizarteak oro har badaki estatu ez-konfesional eta laiko batean pertsonen eta komunitateen askatasun ideologikoa, erlijiosoa eta gurtzakoia bermatu behar dutela erakundeek, ordena publikoa legearen arabera mantentzeko beharrezko diren mugak izanik horretarako muga bakarrak. Era berean, badakigu ideologia, erlijio eta kulturaren aldetik aniztasun handiko gizarte dugula, eta gizarte anitz hau bere ohitura eta ekitaldi sozialak adierazteko modua aldatzen ari dela etengabe.

Gaur egungo gizartean ezinbestekoa da hildakoen aldeko hileta edo omenaldi zibilak egiteko aukera ematea, erlijiorik gabe bizitzea hautatu duten pertsonen omenez ospakizun duin eta pertsonalak egin ahal izateko, zenduaren bizitza-ikuskeraren arabera, alegia.

Gure gizartean, eta geure herrian bertan, erlijio guztiek beren hildakoei agur esateko ospakizun liturgikoetarako toki edo tenpluak dituzten moduan, Iurretako Udalarri dagokio egunetik egunera handitzen ari den eskaera sozial bati erantzutea.

Araudi honen helburua da, beraz, Iurretako gizarte zibila osatzen duten familia, lagun, erakunde eta/edo entitateek beren hildakoei omenaldia egin, agur esan, hildakoei komunitateari egindako ekarpenak nahiz horien balio etikoak eta/edo giza-balioak aitortzeko

ANEXO

**NORMATIVA PARA LA CELEBRACIÓN
DE DESPEDIDAS U HOMENAJES CIVILES
POR FALLECIMIENTO EN IURRETA.**

PREAMBULO

Como es conocido por la sociedad en su conjunto, en un Estado aconfesional y laico, las instituciones deben garantizar la libertad ideológica, religiosa y de culto de las personas y comunidades sin más limitación que la necesaria para mantener el orden público de acuerdo con la ley. Asimismo, es conocida la diversidad ideológica, religiosa y cultural de nuestra sociedad, plural y en transformación constante en cuanto a la manifestación de sus costumbres y actos sociales.

La realización de funerales u homenajes civiles por fallecimiento nace de la necesidad social de ofrecer una ceremonia digna y personal a las personas que han escogido vivir sin la religión, de conformidad a cómo la persona difunta concebía la vida.

Así como las distintas religiones que conviven en nuestra sociedad y en nuestro propio pueblo tienen lugares o templos donde realizar sus actos litúrgicos de despedida a sus difuntos, el Ayuntamiento de Iurreta tiene la obligación de dar respuesta a una necesidad social cada día más demandada.

La presente normativa pretende, por tanto, regular la autorización y celebración que familiares, amistades, organizaciones y/o entidades que componen la sociedad civil de Iurreta quieran realizar a sus difuntos como homenaje o despedida a su persona,

antolatu nahi dituzten ekitaldien baimena eta ospakizuna arautzea.

I. KAPITULUA HELBURUA

1. artikulua

Araudi honen helburua da hildakoen aldeko hileta eta omenaldi zibiletarako Udalaren baimena eta lokalen erabilera arautzea Iurretak udal mugapean.

II. KAPITULUA BAIMENA

2. artikulua

Alkatetzak edo berak ordezkotzen duen Zinegotzigoak emango du hileta edo omenaldi zibiletarako gordetako tokiak erabiltzeko baimena, beti ere Iurretako Udaleko Udal Erregistroan eskaera egiten duen pertsona edo senideak bidali beharreko dokumentazioa jaso ondoren.

III. KAPITULUA PROZEDURARI HASIERA EMATEA

3. artikulua

Hileta edo omenaldi zibilak egiteko eskaerak Iurretako Udalaren Alkatetzari zuzenduko zaizkio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak baimendutako moduetako edozein erabilita.

4. artikulua

Hileta eta omenaldi zibilen eskaerak berehalakotasun-printzipioaren arabera

reconocimiento a sus aportaciones comunitarias o valores éticos y/o humanos.

CAPÍTULO I OBJETO

Artículo 1.-

La presente normativa tiene por objeto regular la autorización y utilización de locales municipales para la realización de funerales u homenajes civiles por fallecimiento en el término municipal de Iurreta.

CAPÍTULO II AUTORIZACIÓN

Artículo 2.-

Podrá autorizar el uso de cualquiera de los espacios reservados para los funerales u homenajes civiles la Alcaldía o Concejalía en quien delegue, previa recepción de la documentación que debe remitir la persona o familiar que dirija su solicitud al registro municipal del Ayuntamiento de Iurreta.

CAPITULO III INICIACION DEL PROCEDIMIENTO

Artículo 3.-

Las solicitudes de realización de funerales u homenajes civiles, serán dirigidas a la Alcaldía del Ayuntamiento de Iurreta en cualquiera de las formas permitidas por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 4.-

La tramitación de las solicitudes para la realización de funerales u homenajes civiles se

tramitatuko dira, egoerak hala eskatzen duelako, eta horiek ebazteko eskumena duen pertsonari bidaliko zaizkio.

5. artikulua.

Eskaeretan honakoak agertu beharko dira:

- a) Ospakizunerako baimena eskatzen duen pertsonaren izen-abizenak, helbidea eta identifikazioa.
- b) Hildako pertsonaren izen-abizenak.
- c) Adierazi egin beharko da hileta edo omenaldi zibila zein egun eta ordutan egin nahiko litzatekeen.
- d) Eskabidearen lekua eta data.
- e) Eskaera egin duenaren sinadura edo, haren nahia benetakoa den froga, horretarako edozein bide erabilita.
- f) Ekitaldiaren laburpena eta behar izango den materiala (megafonia, mahaiak, aulkiak etab.).
- g) Administrazioak, ahal duen neurrian, kontuan izango ditu eskabidean lehenetsitako egun eta ordua, betiere eskabideak aurkeztu diren ordena aintzat izanik. Ezohiko kasuetan aldatu ahal izango da ordena hori, baina betiere arrazoitu egin beharko da aldaketa.
- h) Heriotza-ziurtagiriaren fotokopia erantsi beharko da.
- i) Hildako pertsona Iurretan erroldatuta egotearen ziurtagiria.

6. artikulua

Eskaerak ez baditu betetzen aurreko artikulua eskatutako baldintzak, interesdunari ahalik eta lasterren eskatuko zaio akatsa zuzen dezan edo derrigorrezko dokumentuak ekar ditzan, ekitaldia egin baino lehen edo ondoren.

IV. KAPITULUA PROZEDURA BIDERATZEA

regirán por el principio de inmediatez que requieren las circunstancias, siendo remitidas a la persona competente para su resolución.

Artículo 5.-

Las solicitudes que se formulen deberán contener:

- a) Nombre, apellidos, domicilio e identificación de la persona que solicita la autorización de la celebración.
- b) Nombre y apellidos de la persona fallecida.
- c) Indicación del día y la hora de preferencia para la celebración del funeral u homenaje civil.
- d) Lugar y fecha de la solicitud.
- e) Firma del o la solicitante o acreditación de la autenticidad de su voluntad por cualquier medio.
- f) Breve descripción del acto, y material que se vaya a necesitar (megafonía, mesas, sillas, etc.)
- g) La Administración atenderá en la medida de lo posible la preferencia de la solicitud en cuanto a fecha y hora, ateniéndose al orden de presentación de las solicitudes. Dicha orden podrá ser alterada en casos extraordinarios y siempre que se motive tal alteración.
- h) Se adjuntará copia del certificado de defunción.
- i) Certificado de que la persona fallecida estaba empadronada en Iurreta.

Artículo 6.-

Si la solicitud no reúne los requisitos que señala el artículo anterior se requerirá al interesado o interesada con la mayor urgencia posible para que con antelación al acto o posteriormente subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos.

CAPÍTULO IV INSTRUCCIÓN DEL PROCEDIMIENTO

7. artikulua

Alkatetzak edo berak ordezeko izendatzen duen Zinegotzigoak zehaztuko du hileta edo omenaldi zibila zein egun eta orduan egingo den.

Eskatzaileek lehenetsitako egun eta orduen ordena kontuan izanik zehaztuko dira, ahal den neurrian behintzat, egun eta orduak. Udal bulegoen erabileraren ondorioz, zenbaitetan ez da eskaeretan eskatutako orduetarako horien erabilera uzterik izango. Nolanahi ere, horrelakoetan erabakia behar bezala arrazoituta egon beharko da eta eskaera egin dutenekin hitz egin beharko da eskatu dutenarekiko egon den aldaketari buruz.

8. artikulua

Eskaera ikusita Alkatetzak edo berak ordezeko izendatzen duen Zinegotzigoak erabakiko du hileta edo omenaldi zibila Udalaren zein lokaletan egingo den; normalean Kultur Etxeko Areto Nagusian edo Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan egingo dira, hileta edo omenaldi bakoitzean erabiliko den lokala zehazterakoan, kontuan izango da, aukeratutako egun eta ordutegiarekin, lokal horietan normalean egiten diren jardueretan ez dela eragozpenik sortu behar.

Horretarako egokitu diren lokaletan egiten diren ekitaldietan ospakizuna ezingo da gorpua bertan dela egin. Errauts-kutxatilak bertan egotea baimenduta egongo da.

9. artikulua

Hileta eta omenaldi zibilak astelehenetik larunbatera ospatuko dira, horretarako beharrezko diren udal baliabideak emanda.

10. artikulua

Hileta edo omenaldi zibilak egiteko

Artículo 7.-

La fecha y hora de celebración del funeral u homenaje civil será fijado por la Alcaldía o Concejalía en quien delegue.

La fijación de fecha y hora se realizará atendiendo asimismo, en la medida de lo posible, al orden de preferencias indicado por cada solicitante. Podrá no atenderse al horario indicado en las solicitudes siempre que se den circunstancias derivadas del uso de las dependencias municipales. En todo caso, la resolución deberá estar suficientemente motivada y deberá consultarse a los solicitantes sobre el cambio decidido introducido respecto a su petición.

Artículo 8.-

A la vista de la solicitud la Alcaldía o Concejalía en quien delegue, determinará el local del Ayuntamiento en el que haya de celebrarse el funeral u homenaje civil, que con carácter general se celebrarán en el Salón de Actos de la Casa de Cultura o en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial. Se tendrá en cuenta para determinar el local a utilizar en cada funeral u homenaje, que por el día y hora elegidos no se interfiera en las actividades que habitualmente se desarrollan en dichos locales.

En los actos que tengan lugar en los locales acondicionados a tal fin, no estará permitida la celebración con cuerpo presente. Sí se permitirá la presencia de urnas de cenizas.

Artículo 9.-

Los funerales u homenajes civiles se celebrarán de lunes a sabados, habilitando al efecto los recursos municipales necesarios.

Artículo 10.-

El horario para la celebración de los

ordutegia, astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara izango da, eta larunbatetan goizetan 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldeetan 18:00datik 21:00etara izango da. Zeremoniak gehienez ere berrogeita bost minutu iraungo du.

11.artikulua

Hileta edo omenaldi zibilak irauten duen bitartean Iurretako Udaltzaingoa areto kanpoaldean egongo da dena ondo doala bermatzeko.

V. KAPITULUA ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

12. artikulua

Udalaren aretoak egoera onean mantentzearen, zeremoniara joaten direnek ezingo dute Udalaren aretoetan kalte edo hondamenik sor lezakeen inongo ekintzarik egin eta, halakorik gertatuz gero, baimendutako pertsonak bere gain hartu beharko ditu eragindako kalteen gastuak.

13. artikulua

Utzitako lokala apaindu edo modo bereziren batean egokitu nahi badute, udal zerbitzuari garaiz jakinarazi beharko diote, honek hartu beharreko erabakia har dezan. Tokiaren harmonia eta ezaugarriak errespetatu egin beharko dira beti eta eurek ordaindu beharko dituzte lokala apaindu eta egokitzeak eragindako gastu guztiak. Interesduna arduratuko da, bere kontura arduratu ere, ekitaldia ospatzeko zerbitzu osagarriez. Dena dela, Iurretako Udalak zerbitzu horiek ikuskatu ahal izango ditu.

14. artikulua

Horrelakoetarako dagokion ordenantza fiskalak ezarritakoak baldintzatuko du eskubide

funerales u homenaje civil será de lunes a viernes de 18 a 21 horas y los sábados de 10 a 13 horas y de 18 a 21 horas. La duración de la ceremonia será de un máximo de cuarenta y cinco minutos.

Artículo 11.-

Durante el transcurso del acto de celebración del funeral u homenaje civil, la Policía Municipal de Iurreta permanecerá en el exterior para garantizar el normal desarrollo del mismo.

CAPÍTULO V DERECHOS Y OBLIGACIONES

Artículo 12.-

A fin de garantizar la buena conservación, quienes asistan a la ceremonia se abstendrán de realizar cualquier acto que pueda suponer deterioro o menoscabo de las dependencias municipales, asumiendo la persona autorizada los gastos que, en su caso, se produjeran por daños o desperfectos que pudieran ocasionarse.

Artículo 13.-

Si se deseara ornamentar el local asignado o acondicionarlo de forma especial, deberán hacerlo saber al servicio municipal con la antelación suficiente para que resuelva lo que proceda, respetando siempre la armonía y características del lugar y siendo a cargo de la persona solicitante los gastos que con este motivo se produzcan. Los servicios complementarios para la celebración del acto, los aportará la persona interesada e irán a su cargo sin perjuicio de la supervisión de los mismos por parte del Ayuntamiento de Iurreta.

Artículo 14.-

El abono de derechos y tasas quedará supeditado a lo que, en su caso, se establezca en la

eta tasen ordainketa.

15. artikulua

Araudi honetan aurreikusi gabeko gainerako guztian udal arduradunen aginduak bete beharko dira eta urriaren 19ko 202/2004 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamendua arautzen duenak, ezarritakoa aplikatu beharko da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Iurretako Udaleko Alkatetzari baimena ematen zaio araudi hau aplikatzeko beharrezko diren jarduketak guztiak egin ditzan.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau indarrean sartuko da, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, behin betiko onetsitako Testua osorik argitaratu eta aipatutako artikuluan adierazitako ondorioekin, aipatutako legezko testuzo 65.2 artikuluan aurreikusitako epea iragan ondoren.

correspondiente ordenanza fiscal.

Artículo 15.-

En todo lo no previsto en esta normativa, se deberán seguir las instrucciones de los responsables municipales y se estará, en lo que pueda resultar de aplicación a lo dispuesto en el Decreto 202/2004, de 19 de octubre, por el que se regula el Reglamento de sanidad mortuoria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Se autoriza a la Alcaldía del Ayuntamiento de Iurreta para la realización de las actuaciones necesarias en orden a la aplicación de la presente normativa.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Normativa entrará en de conformidad con lo previsto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, una vez se haya publicado íntegramente el texto aprobado definitivamente y haya transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2 del citado texto legal con los efectos señalados en el citado artículo.